

Krisi bat gehiago

JOAN MARI TORREALDAI



AZKEN krisi politikoa nagusia dela eta (lerro hauek argitaratzeko hiru egun pasako dira; ez al da artean besterik sortuko!), ehundaka lerro irakurri ditut, milaka hitz entzun ditut. Zerekin gelditu naizen norbaitek galdetuko balit, ez nuke jakingo bi hitzetan zer esan, egungo politikoa profesionalai diena «debozioa» ez dela berotu aparte.

Zerekin gelditu naizen? Ba, agian, gure arteko egunkari bateko orrialde berean elkarren ondoan agerturiko hiru iritzi-emaitelen esaldi banarekin:

P. Ibarrek: «Mi amigo Jose Mari dice que el Partido Nacionalista Vasco, haga lo que haga, siempre gana. ¡Qué país!». Nire lagun Martinek ez du hori pentsatzen. Martin dago oker. Ez Jose Mari.

M. Ferrerek: «...se ha banalizado la aspiración a la independencia, se ha instrumentalizado el Estatuto de Autonomía, y se ha puesto de relieve, una vez más, la distancia creciente entre los políticos y la sociedad». Santu batek baino arrazoi gehiago.

R. Olabuenagak: «El nacionalismo vasco no necesita enemigos que lo persigan, se autoconsume él mismo». Ai Franco-ren aurka eskaldunok bat egiten genuen garai hura!

Neuretik ez dakit zer erantsi. Baina, lasai nago, urak bere ubidera itzuli aurretik bururatuko zait zerbait eta.

Berdea bederen

JEAN LOUIS DAVANT



UDAZKENA dator-kigu eta, urtero bezala, gogoia hartzen digu halako tristura batek. Udari dolo egiten diogu naski. Baina oker ga-biltza hor. Zeren alde batetik, urteko aro ederrena dugu larrazkena Euskal Herrian.

Bestetik udan itozten gaituzten arotz ostetariar aske uzten gaitu, edo gutti eskas. Segurki, bordales ihiztariak ikusiko ditugu portuan. Baina haiek ere laster joanen zaizkigu Iparraren behera, ursoak hegoaldera iragan arau. Euri sorta bat etorriko zaigu agian itsasaldetik. Manex haizearen hegaletan, ura behar baitugu hiritarrek ere, dutxaren doiaz eginik. Bere margo berde ederra atxik dezala Euskal Herriak, beste gutziti galeraziko bait diote politika zizonen astakeriek. Gorria kendua diote, zuria berriz urratua eta zikindua. Esperantza bederen atxik dezagula, haize beltzari esker baldin bada ere.

EL PAIS

Epaiketa historikoa

Deitoragarria da Gobernuak, egin dituen adierazpenetan Amedo eta Dominguezren uestezko errurikeza behin eta berriro aldarrikatu izatea Estatuari eragin dioten kaltea baino. GAL egon edo ez egon, dituen eginkizun polizialak edo ez, kondenatutako polizien delituzko ekintzak oraindik erabaki ez diren galderak egitera behartzen gaitu. Eurak al ziren legez kanpo dagoen erakundeke partaite bakarrak? Leporatu zaizkien atentatuek euren dirurakin ala diru publikoarekin finantzatu zituzten? Galdera horiei gutzietz auzitegiak eskuan izan dituen datuen bidez erantzuten ahalgindu da.

EDITORIALA / 1991-IX-21

Diario 16

Kontuak haizatu

Zentzu apur bat duen edonork ez du ueste leporatzen zaizkien delituzko ekintzen erantzule nagusienak Amedo eta Dominguez direnik eta hauek orain arte zuhur ixilik egon badira eta da Polizia-

rekin fideltasunagatik bakarrik izan baizik eta, etorkizuneko aginduak egin dizkietelako. Baina ehun eta lau urte horiek, harlosa baten antzera pisatu behar dutenek, isilunea hautsiaz diezaitete eta espektakulu lotsagarria eragin, guzti horren atzean dagoena haizatu. Horrek bat baino gehiago dardaraz jarriko du.

PILAR CERNUDA / 1991-IX-21

EL CORREO ESPAÑOL

Autogobernurako estatu bidea

Nola prozesu bat eman daiteke amaitutzat, prozesuko agente batek autogobernu maila askoz gairagoetara iritsi daitekeela ueste badu, duen Estatuaren hori bere-gain harturik badu?

Edozein modutan, autonomi auziaren inguruan erabakitzeke dauden arazoak ez dira estatu garapen handiagoaren edo txikiagoaren ondorio. Estatu egitura barruan partehartzaren mugak zeintzuk diren oraindik ez dira eztabaidatu modu erabakiorrean.

(...)



JESUS FERRERO / EL DIARIO VASCO / 91-IX-21

Parametro horien bidez paktu autonomikoaren eztabaidari ekingo diogu. Horri buruz, bestalde, hitzen magia dela eta hainbeste denboran ari gara hitzegiten eta oraindik zer den ez dakigu.

JOSEBA DE ZUBIA
ATXAERANDIO / 1991-IX-21

EL MUNDO

Gonzalez lehendakariaren 'omertà'

Gonzalez Gobernuaren tesia aurrera doa. GALekoak ez ziren

talde terrorista bat, beraz horren arduradun eragileak ezin dira terroristak izan. Badira terrorista onak eta terrorista txarrak, nonbait; segun eta nonberaren interesean alde ala kontra egiten duten.

Gonzalez lehendakariaren obsesioa izan da beti, bere espezialista traketsen burua Estatu alkan-tariletan salbatu baino, ebitatzea Justiziak legezotasuna ematea, zeri eta, GAL erakunde terroristaren ezkutukoak gutxi-gehiago ezagutu eta ziurtatz jutzen dutenari: Espainiako Estatuaren papera terrorismo antiterroristaren uestzkoa baino handiagoko patroitzean.

MELCHOR MIRALLES / 1991-IX-21

ZUZENDARIARI

Bilboko Udal Polikiroldegiak zertarako?

Orain arte, Bilboko haurrek uger egiten ikasi eta trebatu daitezkeen erabili izan dira.

Orain arte, Bilboko haurrek zenbait kiroletan lehen urratsak bertan ematen zituzten.

Orain arte, kurtsio hasieran eskolara txandak banatu izan dira.

Orain arte, bazeuden polikiroldegi bakoitzean horretarako monitore bereziak.

Orain arte, monitore berezi hoiek ez ziren sarritan eskaldunak.

Hemendik aurrera, ez duela Udalleteak monitorerik jarriko?

Hemendik aurrera, eskola bakoitzak beharko duela monitore hori aurkitu?

Hemendik aurrera, nola antolatuko ditugu eskoletako haurrek polikiroldegian?

Hemendik aurrera, zein irakaslek nahiko du polikiroldegira joatea?

Hemendik aurrera, nork jasoko du ardura hori?

Zain gauden bitartean aurreratu nahi genuke:

1.- Berandu adierazi zaigula aldaketa.

2.- Monitore bereziak behar

ditugula lehenbailehen.
3.- Ezinbestekoa dela eskaldunak izan daitezkeen.

KARMELO IKASTOLA
BILBO

Sukia kardinal agurgarriari eskerrik asko

Joan zen asteburuan Goizuetan ene adiskideen ezkontzaren pozetan egon ondoren, igande iluntzean Deustu Unibertsitate irizuli nintzen. Euskaltzale jator batzuk eman zidaten berri ona:

«Sukia Kardinalak ostira-lean hitzaldi egin zuen hemen Deustu Unibertsitatean, den dena euskaraz».

Deustu Unibertsitatean San Inaziori buruzko Nazioarteko Historia-Batzarra izan da joan den astean eta beste batzuk frantsesez edo espainolez mintzatu diren bezala Sukia Kardinala euskaraz.

Loriatan zeuden ene adiskideok eta ni ere horrela jarri nintzen.

Exenplu ona eman ziguna Sukia kardinalak. Loiolako Inaziok behin eta berri esan zigun guri josalagunoi: «Esker onekoak izan». Sukia Kardinal Agurgarriari, beraz: *Eskerrik*

Asko. Izan ere, Deustun ez da horrelako asko egiten. Nik beti esan dut Deustu Unibertsitateak lan bikaina, handia egin duela eta egiten duela. Zinez ohore da hemen lan egitea.

Euskara kontuetan, ordea, ezin dut hori esan. Bostehun gai gutxi gorabehera espainolez irakatsi eta euskaraz berrogeiren bat bakarrik ez zait iruditzen zuzena denik.

Txarrena da eskaldunok ez dugula bidegabe hori ikusten. Kolonialismoa gauza onargarritzat jotzen dugu. Euskal Herria hiru Unibertsitate ditugu eta horietan errektore batek ere ez daki euskaraz. Pertsonarik onenak direlarik ere, zeinen erretoreak dira horiek? Espainolenak; eskaldunok ez behintzat. Zergatik onartzen ditugu holako bidegabeak?

Euskaldunok geure eskubideak errespeta erazten ikasten ez dugun bitartean egoera deitoragarri honek horrela iraungo du.

Horregatik txalagarriak dira Sukia Kardinal agurgarriaren bezalako jokabideak. Aspaldidanik euskara Unibertsitate eta goiko mailara jasotzen ahalaginetan ari garentzat pizgarri eta lagungarri.

GOTZON GARATE
BILBO

PERTSONAIA



Jose Amedo

Hemen legeak betetzen dira guztiok dakigu zelan lujo gehiegi ez da azaltzen torturatuen okelariak besteak berriz barruan daude Maria Cristinako eran ehun da zortzi hile Amedo ezetz pasatu kartzelan.

XABI AJURIA

HELBIDEAK

Egoitza soziala, Pulizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabiloak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Araba: San Antonio, 20-1.ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13.esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 78 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1.eskuma. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurdi / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2, Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11

Zuzendaria:
PELLO ZUBIRIA

Zuzendariordeak:
NEREA AZURMENDI
LUZIAN ETXEZAHARRETA
INAKI URIA

Publizitatea:
KORNELIO ROTETA

Batzorde Parekidea: 72564 E
Lege Gordailua: SS 80090

Egunkaria

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:

MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria:

JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria:

JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea:

INMA GOMILA